

**Prensa oharra**

**Larrialdiko kanpaina**

**EROSKI-K LAGUNTZA KANPAINA BAT AKTIBATU DU  
MAROKOKO LURRIKARAN KALTETU DIRENTZAT**

- **Bezeroei elkartasuna erakusteko deia egin die, ordainlekuetik pasatzean, borondatea emanez herritarren oinarrizko beharrak estaltzen lagundu dezaten**
- **EROSKIk eta bezeroek emandako guztia Gurutze Gorriak bideratuko die kaltetun suertatu diren herritarrei**
- **EROSKIk, bezeroek emandakoaz gain, ekarpen gehigarri bat egingo du**

**Elorrio, 2023ko irailaren 13a.** - [EROSKIk](#) larrialdietarako laguntza kanpaina bat jarri du martxan bere sare osoan, Marrakexko eskualdea jo duen lurrikara suntsitzailean kaltetu direnei laguntzeko. Bezeroek borondatezko dohaintza bat egin dezakete ordainlekuetatik igarotzean nahi duten kopurua emanda.

EROSKIk eta haren bezeroek emandako guztia [Gurutze Gorriak](#) bideratuko du, eta Marokoko Ilargi Gorriaren eskura jarriko du kaltetun suertatu direnei laguntzeko, nola eta lehen mailako premia duten artikulua bidalita eta diruz lagunduta. Ilargi Gorriko taldeak berehala hedatu ziren eskualdean, eta Nazioarteko Federazioekin eta tokiko agintariekin estuki koordinatuta ari dira, kaltetunei laguntzeko eta erreskate zereginetan parte hartzeko, aurreneko orduak giltzarriak izaten baitira erreskateak egiteko.

Agintarien arabera, 6,8 graduko magnitudeko lurrikara izan da, eta dagoeneko 2.900 lagun baino gehiago daude hilak, eta beste 5.500 lagun zaurituta. Erreskate taldeak eta Marokoko Indar Armatuak jarraitzen dute bizirik egon daitezkeenak bilatzen lurrikarak eraitsitako etxe hondakinen artean, hirurogei urtean izan den hilgarriena.

*"Hondamendi honetan larrialdiko laguntza baten premia dagoela eta, gure bezeroei aukera eman nahi diegu urgentziaz lagundu nahi badute. Emandakoa Eroskik berak jarriko duenari batuko zaio. Dohaintza ordainlekuetan egin behar da, eta kontsumitzaileek*

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online prentsa aretoa**

*erabakitzen dute zenbat eman. Horrelako kanpainak oso garrantzitsuak dira gehien behar den tokira iristeko eta ahalik eta lasterrena iristeko. Seguru gaude kontsumitzaileek erantzungo diotela deialdi honi ere",* esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

*"Eremu horretan joan deneko urte sail batean izan den lurrikararik indartsuena izan dute. EROSKI eta haren bezeroak beti egon ohi dira ondoan horrelako larrialdietan, eta horrek laguntzen digu lanean jarraitzeko gehien behar duenaren alde, nonahi eta noiznahi",* adierazi du Jaime Gregorik, Espainiako Gurutze Gorriko Funtsen, Enpresekiko Aliantzen eta Erantzukizun Sozialen zuzendariak.

Dendetan bezeroek emandakoari esker bildutakoaz gain, EROSKIk ekarpen gehigarri bat egingo du; hala, urtero gizarteko kausen alde ematen dituen hamar milioi euroei batuko die kopuru hori.

EROSKIk, bezeroekin batera, milioi erdi eurotik gorako dohaintzak egin ditu hondamendi naturalengatik eta kausa humanitarioengatik kaltetu direnei laguntzeko aktibatu diren azken elkartasun kanpainetan; besteak beste, Haitirako (2010 eta 2016), Lorca - Murtziarako (2011), Filipinetarako (2013), Nepalarako (2015), Siriarako (2015), Mallorcarako (2018) Palmarako (2020) eta Ukrainako krisirako (2022). Turkiako eta Siriako lurrikaran kaltetun suertatu ziren herritarrentzat izan zen azkena.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online prentsa aretoa**